



<b>adats</b> 'ile multzo luzea'	«—Barkatu, Tere –esan zion, ohe ertzean eseri eta alabari <b>adats</b> eko ileak ferekatzen zizkiola...»	(64)
<b>aharrausi</b> 'ahoa zabaltzea, loguragatik-edo'	«...eta ongi bai ongi jakinarazi zion suhiari bere ohiko erretolikaren ondorioa, haren <b>aharrausia</b> bukatu eta gero...»	(34)
<b>aldarri</b> 'mezua, ozen zabaltzen dena'	«Eta elkartearen arduradunak, ondorioz, pairamen eta eraman onaren <b>aldarria</b> zabaltzen ahalegintzen ziren emakumeen artean...»	(47)
<b>aletu</b> 'zatitu, bereizi'	«...eta irakurtzen hasi orduko egin zion lehen galdera, ez zekièn hitza silabatan <b>aletzen</b> zuela: —Zer dira pa-tri-zi-o-ak?»	(23)
<b>alu</b> 'lerdoa, papaua'	«...hik heuk bizi behar dunala heure bizitza, eta ez beste horiena... burges <b>alu</b> horiena, garbi hitz egiteko?»	(11)
<b>amaraun</b> 'aramu sarea, armiarma sarea'	«Eta irri egin zion Tomasi, eta irriaren <b>amaraunean</b> harrapatuta geratu zen gizona.»	(68)
<b>antzarak ferratzera bidali</b> 'bakean uzteko adieraztea'	«Eta jakingo bazenu, halaber, zenbat aldiz bidali zaitudan <b>antzarak ferratzera</b> ...!»	(138)
<b>apar</b> 'bitsa'	«Gau eta egun plantak egiten ibiltzeak ez baitu maitasunarekin zerikusirik, eta barruko urak ez baitu kanpora atera beharrik, <b>aparretan</b> galtzeko...»	(17)
<b>apetatsu</b> 'gurari bereziak dituen'	«Baina Ines neska <b>apetatsua</b> zen berez eta, lehenengoa bukatu orduko, bigarrena eskatu zion...»	(19)
<b>arerio</b> 'etsaia, aurkaria'	«... <b>arerioak</b> ere izango zituen (...) –euli eta eskorpioen neurrikoak, baita erbinude eta lehoien neurrikoak ere...»	(141)
<b>arranopola!</b> 'ospera!, arraioa!, joe!	«...eta ezpain haiek, lehertzeaz zeuden bi marrubi umo iduri... Eta hura gutxi bazuen, Teresa irriz agertu zitzaion, gainera, <b>arranopola</b> ...!»	(73)
<b>aurki</b> 'ziur, bai horixe!'	«Martxa honetan, soberan egongo dira hiztegi guztiak <b>aurki</b> !»	(18)
<b>ausaz</b> 'agian, beharbada, apika'	«...hitz gehiagorik ez egitea erabaki zuen Kontxik, ekintzen garaia heldua baitzen, <b>ausaz</b> ...»	(49)
<b>auskalo</b> 'batek daki, nork jakin'	«...amak esan zionean aita etxetik alde egin zela, <b>auskalo</b> nora, (...), iruzkin bakarra egin zion Teresak...»	(61)
<b>barrundatu</b> 'susmatu, igarri'	«Amona Kontxik ederki barrundatu zuen eta usaindu (...) zerbait gertatzen ari zela han bainugelana...»	(73)
<b>bederen</b> 'behintzat, behinik behin'	«...ez zegoela egunero oilaskoa jaterik, azkenean nazka hartu nahi ez bazitzaion <b>bederen</b> ...»	(13)
<b>bekozko</b> 'betiluna, adikunea, begirazoa'	«...ezpainetako irria <b>bekozko</b> bihurtu zen senarraren betartean.»	(43)
<b>beldurrak airean</b> 'izututa, beldurrak hartuta'	«—Kendu, kendu, kendu...! –esan zuen Inesek, <b>beldurrak airean</b> garrasika.»	(172)
<b>bertatik bertara</b> 'hurbiletik, aurrez aurre / berehalaxe'	« <b>Bertatik bertara</b> ezagutu zuenean, ordea, Emili uste baino emakume xaloagoa zela egiaztatu zuen Kontxik.»	(105)
<b>betarte</b> 'begitartea, aurpegi itxura'	«...ezpainetako irria bekozko bihurtu zen senarraren <b>betartean</b> ...»	(43)
<b>betoker</b> 'begia oker daukana'	«Historia hark guztiak Lourdeserantz abiatu zen emakumearena oroitarazten zion amona Kontxiri, <b>betoker</b> joan eta itsu itzuli zenarena!»	(26)
<b>birao</b> 'madarikazioa, araoa, hitz gorria'	«—Isildu, neska, <b>birao</b> bat gusturago entzungo baininake.»	(18)
<b>bogada</b> 'bokata, lixiba, garbitzeko arropa multzoa'	«...gehi gelen eta bazter guztien garbiketara, gehi <b>bogada</b> , gehi plantxa, gehi erosketak, gehi jertseak...»	(40)
<b>bukatzeaz</b> 'bukatzeko puntuan'	«...baina, ohartu zenean hauek lana <b>bukatzeaz</b> zutela, beste pauso bat ematea erabaki zuen...»	(68)



<b>burruntzali</b> 'kazua, saldarako'	«...erantzun zion Teresak, <b>burruntzaliarekin</b> zopa banatzen zuen bitartean...»	(123)
<b>doi</b> 'justu, hain zuzen'	«...izeba Emilik aste pare bat lehenago erregalatu ziona, neskak hamabost urte bete zituèn egunean <b>doi</b> .»	(174)
<b>egoskor</b> 'burugogorra, tematia,	«Baina, <b>egoskorra</b> ere bazenez, negarrez hasi zen jarraian Ines.»	(19)
<b>elkar eraman</b> 'elkarrekin konpondu, ondo izan'	«...eta ezin dezakegu, apaltasunetik baizik, elkar maitatu, elkarri barkatu eta <b>elkar eraman</b> .»	(176)
<b>erbinude</b> 'ogigaztaia' (comadreja)	«...arerioak ere izango zituen (...) –euli eta eskorpioien neurrikoak, baita <b>erbinude</b> eta lehoien neurrikoak ere...»	(141)
<b>errekete</b> 'soldadu karlista'	«... <b>erreketeek</b> fusilatu baitzuten, Irundik Altzara sartu zirenean, 36ko gerra madarikatu hartan. Zergatik? Komunista leninista zelako.»	(32)
<b>erretolika</b> 'sermoia, berba piloia'	«...eta ongi bai ongi jakinarazi zion suhiari bere ohiko <b>erretolikaren</b> ondorioa, haren aharrausia bukatu eta gero...»	(34)
<b>eskarmentu</b> 'ikaskizuna, lezioa / esperientzia'	«—Nik <b>eskarmentu</b> handia hartu ninan hire aitarekin, eta heu ere kontuz ibili...»	(39)
<b>eskirol</b> 'greba izan arren, lan egiten duena'	«...langileok kate bat osatzen baitugu, eta <b>eskirol</b> alu bat nahikoa baita katea hausteko eta edozein greba pikutara botatzeko.»	(33)
<b>ez beste</b> 'izan ezik, salbu'	«...gobernuarena <b>ez beste</b> sindikatuak legez debekatuta zeuden Francoren garai hartan...»	(41)
<b>ezkur</b> 'haritzen, arteen... fruitua'	«... "zerri goseak ezkurra amets"? Baina nola entzungo huen, <b>ezkurra</b> zen den ere ez badakin...»	(18)
<b>fardel</b> 'paketea'	«...Boni Bonek esana baitzion konfiantzazko norbaitek emango ziola <b>fardela</b> , metro bateko boa gordetzen zuena.»	(169)
<b>garrasika</b> 'oihuka'	«—Kendu, kendu, kendu...! —esan zuen Inesek, beldurrak airean <b>garrasika</b> .»	(172)
<b>gerripeko</b> 'tapakia, kuleroa, tanga'	«...indigenen aldeko GKEan jarraitzen dut oraindik... —Bai, sinesten diat. Haiak <b>gerripekoarekin</b> ibiltzen ditun eta hi ia gerripekorik gabe...»	(80)
<b>glebako jopu</b> 'jaun feudalen lurak lantzeko esklabua'	«"Gizaki libreak eta esklaboak, patrizioak eta plebeioak, baroiak eta <b>glebako jopuak</b> , maisuak eta ofizialak: zapaltzaileak eta zapalduak, hitz batean...»	(22)
<b>gorrimin</b> 'gorri-gorria, gorri bizia'	«Orain, Teresaren ezpain <b>gorriminek</b> irri baten itzala izan zitekeena moldatu zuten.»	(64)
<b>gutizia</b> 'apeta, gurari berezia'	«Izan ere, bakoitzak bere <b>gutiziak</b> ditu, eta mutilok ere baditugu geureak, neskei lotutako kontuetan...»	(189)
<b>halaber</b> 'era berean, baita'	«Eta jakingo bazenu, <b>halaber</b> , zenbat aldiz bidali zaitudan antzarak ferratzera...!»	(138)
<b>halatsu</b> 'antzekoak, hor nonbait'	«Ez al dakin, bada, pantera guztiak beltzak direla? Eta paterak eta pateren hixtoriak ere, <b>halatsu</b> ...!»	(31)
<b>hamaika</b> 'asko, ugari, zenbanahi'	«...hogeita hiru urte haietan, gaur langileei buruzko <b>hamaika</b> istorio kontatzen zizkiola eta bihar komunismoaren inguruko hamaika ideiare berri ematen...»	(14)
<b>harrabots</b> 'astrapala, zaratotsa'	«...etxeko arrain-ontzia, leku batetik bestera, hotsa eta <b>harrabotsa</b> . Itxura guztien arabera, zerbait harrapatu nahian zebiltzan...»	(157)
<b>harroputz putzontzi</b> 'harro gangarra'	«Baina merezia zuen Aitorrek, <b>harroputz putzontzi</b> bat delako.»	(35)
<b>hasperen egin</b> 'arnasaldi sakona, suspirioa'	«...baina neka-neka arraio bukatu zuèn egun haietako batean, <b>hasperen egin</b> eta, hasperenarekin batera, pentsamendu bat sartu zitzaion buruan...»	(41)
<b>hori da, hori!</b> 'harridura eta poza adierazteko'	«...eta haietako batek oihu ere egin zuen. " <b>Hori da, hori!</b> ", baina gehienak barrez hasi ziren...»	(111)



<b>iduri</b> 'antzera, (balira) bezala'	«...eta ezpain haiek, lehertzear zeuden bi marrubi umo <b>iduri</b> ... Eta hura gutxi bazuen, Teresa irriz agertu zitzaion, gainera, arranopola...!»	(73)
<b>ihardetsi</b> 'erantzun, arrapostu'	«...haur bakoitzak bere haurkeriari arre...! — <b>ihardesten</b> zion amona Kontxik.»	(20)
<b>inkisitibo</b> 'galderazkoa'	«Teresaren begirada <b>inkisitiboaren</b> aurrean, amona Kontxi defendatu egin zen.»	(123)
<b>irabazi</b> 'mirespena lortu'	«Hantxe <b>irabazi</b> zuen psikologoak amona!»	(13)
<b>iradokitzaile</b> 'sugerentea, deigarria'	«...estreinatu ez zituen, bada, Teresak blusa <b>iradokitzaile</b> bat eta minigona are iradokitzaileago bat, kolore askotakoak biak!»	(76)
<b>irtirin</b> 'polita dela uste duena'	«Izan ere, Teresa neska <b>irtirina</b> zen, ispiluaren aurrean orduak egiten zituena...»	(62)
<b>iruzkin</b> 'analisi'	«...amak esan zionean aita etxetik alde egina zela, auskalo nora, (...), <b>iruzkin</b> bakarra egin zion Teresak...»	(61)
<b>itogin</b> 'sabaitik, ur tantak jaustea'	«...konponbiderik ez zuen <b>itoginari</b> hala-holako konponketa egin nahi izan zion amonak.»	(36)
<b>itzulalditxo bat</b> 'osteratxo bat, bueltatxo bat'	«...geratu ziren Donostian, Paseo Berritik <b>itzulalditxo</b> bat egiteko...»	(69)
<b>kanpoeder</b> 'kanpokoentzat atsegina dena'	«Atseginago iruditzen baitzait gizon <b>kanpoeder</b> bat, barrurik gabekoa, beste bat baino, barru-betea...»	(78)
<b>kar-kar</b> 'barreak' (onomatopeia)	«—Zu zara zu, emakumea, <b>kar-kar-kar</b> ...!»	(126)
<b>kezkatuta</b> 'arduratuta	«Horregatik, Ines jaio zenean <b>kezkatuta</b> egon zen, nora ezean, ez zekielako nola hezi behar zuen bere biloba hura...»	(12)
<b>kinka</b> 'estualdia, momentu estua'	«Baina nola izan zitekeen hura, <b>kinkarik</b> larrienetan ere mihiak huts egin izan ez bazion?»	(10)
<b>kiribildu</b> 'biribilean bildu, biraka'	«...imajinatu zuen, halaber, sugea mermelada ontziaren inguruan <b>kiribiltzen</b> ...»	(166)
<b>kizkurtuta</b> 'kiribilduta, batuta'	«...amonaren irudia telebistaz ikusi zuen lehen aldi hartan, arnasa kendu baliote bezala, <b>kizkurtuta</b> eta uzkurtuta...»	(143)
<b>kopla</b> 'txantxa, lelokeria'	«...bere burua kristautzat zuena, baina, amona Kontxik bezala, <b>kopla</b> gutxi zituena.»	(47)
<b>kurrinka</b> 'txerrien oihua'	«...txilin eta txilin, harik eta txilinaldi hura <b>kurrinkaren</b> antzeko zazpi hasperenetan bukatzen zen arte...»	(91)
<b>lausengu-balakuak</b> 'losintxak, gehiegizko	«Zeren amona Kontxi sinetsia baitzegoen laztan-fereken eta <b>lausengu-balakuen</b> gehiegikeriak pertsonak ahulak (...) sortzen zituela...»	(15)
<b>lztan-ferekak</b> 'igurtzi gozoak, maitekorrak'	«Zeren amona Kontxi sinetsia baitzegoen <b>lztan-fereken</b> eta lausengu-balakuen gehiegikeriak pertsonak ahulak (...) sortzen zituela...»	(15)
<b>litxarrerria</b> 'txibizkeria, balio gutxiko jatekoa'	«...jan ere ez zuen jan beharrik, ez kezkatu beharrik <b>litxarrerrien</b> salneurriaz, izozkien prezioa igo zen ala ez.»	(151)
<b>mailatu</b> 'kolpeagatik apur bat okertu'	«...jo zuenari kolpe-leungailuan <b>mailatu</b> txiki bat utzi baitzion, besterik ez...»	(100)
<b>mainontzi</b> 'negartia	«Baina Ines <b>mainontzi</b> hutsa zen, eta trikimailu haiek erabiltzen zituen (...) bere ingurukoak irabazteko, aita eta ama batez ere.»	(16)
<b>menera</b> 'menpe, esanetara'	«...nola ohartu baitzen instant hartan (...) burua bihotzaren <b>menera</b> zuela...»	(75)
<b>murritzutu</b> 'gutxitu, eskastu'	«—Langile bakar baten eskubide ustezkoa, ordea, traizioa da, gainerakoien eskubide <b>murritzutea</b> badakar.»	(33)



<b>neka-neka arraio bukatu</b> 'sats eginda, leher eginda amaitu'	«...baina <b>neka-neka arraio bukatu</b> zuèn egun haietako batean, hasperen egin eta, hasperenarekin batera, pentsamendu bat sartu zitzaion buruan...»	(41)
<b>nexka</b> 'neskatila'	«...Begoñak jaso zuen <b>nexka</b> egun hartan...»	(56)
<b>noraezean</b> 'galduta bezala, helbururik gabe'	«Horregatik, Ines jaio zenean kezkatuta egon zen, <b>noraezean</b> , ez zekielako nola hezi behar zuen bere biloba hura...»	(12)
<b>oka egin</b> 'goitikatu, bota'	«Kontxi nazka hartzen hasi zitzaion oilaskoari, harik eta, beste egun batean <b>oka egin</b> zuen arte.»	(14)
<b>oldarraldi</b> 'erasoaldia, indarrez bultza egin'	«...plazer ustezkoa desplazer gertatzen zitzaion Kontxiri, senarraren gorputz <b>oldarraldiak</b> gero eta desgogarago hartzen zituela.»	(41)
<b>onez</b> 'modu onean, adeitsu'	«...erantzun zion amona Kontxik, <b>onez</b> hasieran.»	(43)
<b>ongi bai ongi</b> 'ondo ere ondo, ederto'	«...eta <b>ongi bai ongi</b> jakinarazi zion suhiari bere ohiko erretolikaren ondorioa, haren aharrausia bukatu eta gero...»	(34)
<b>ostadar</b> 'ortzadarra, Erromako zubia'	«...hiztegi haren zero mugatuan ez zegoela <b>ostadarririk</b> pizterik, berak –amonak– noiznahi pizten zituen bezala (...) lokuzio txinpartatsuak eta esaera	(122)
<b>otarteko bat txorizo</b> 'txorizoz gainezka, bete-betea'	«Eskolatik itzuli berria, askaria prestatzen ari zen Ines – <b>otarteko bat txorizo</b> –, amona Kontxik honela esan zionean...»	(129)
<b>pairamen</b> 'sufirimendua'	«Eta elkartearen arduradunak, ondorioz, <b>pairamen</b> eta eramán onaren aldarria zabaltzen ahalegintzen ziren emakumeen artean...»	(47)
<b>pinpirin</b> 'apaina eta dotorea' (gehiegi)	«—Nik ere pentsatu nuen noizbait misioetara joatea, baina nola joango naiz Teresa bezalako emakume <b>pinpirinak</b> hemen utzita...!»	(67)
<b>plantak egin</b> 'itxurak egin'	«Gau eta egun <b>plantak egiten</b> ibiltzeak ez baitu maitasunarekin zerikusirik, eta barruko urak ez baitu kanpora atera beharrik, aparretan galtzeko...»	(16)
<b>putzera ere ez iritsi</b> 'hutsaren hurrengo izan'	«...defentsatik gehiago dutenak erasotik baino, <b>putzera ere iristen ez</b> denak urakan baten aurrean defendatzeko eskubidea baitu gutxienez...»	(128)
<b>suhi</b> 'alabaren senarra'	«...eta ongi bai ongi jakinarazi zion <b>suhia</b> ri bere ohiko erretolikaren ondorioa, haren aharrausia bukatu eta gero...»	(34)
<b>trikimailu</b> 'maltzurkeria, azpijokoa'	«Baina Ines mainontzi hutsa zen, eta <b>trikimailu</b> haiek erabiltzen zituen (...) bere ingurukoak irabazteko, aita eta ama batez ere.»	(16)
<b>txilin</b> 'pitolina'	«...atsegin baitzuen norbaitek haren <b>txilin</b> politari eragin ziezaion, txilin eta txilin...»	(91)
<b>txinpartatsu</b> 'bizi-bizia'	«...hiztegi haren zero mugatuan ez zegoela ostadarririk pizterik, berak –amonak– noiznahi pizten zituen bezala (...) lokuzio <b>txinpartatsuak</b> eta esaera	(122)
<b>txolarte</b> 'denbora tartetxoa'	«Halakoetan, etxeko lanak uzten zizkiòn <b>txolarteetan</b> , amona puntu egiten aritzen zen, sofán eserita...»	(27)
<b>txolin</b> 'kaskarin, edan ostean lelotuta'	«Eta okerrean izaten zen, <b>txolin</b> etortzen zen bakoitzean, ohean sartu eta Teresa esnatzen zuela...»	(91)
<b>umo</b> 'heldua, ondua'	«...eta ezpain haiek, lehertzeaz zeuden bi marrubi <b>umo</b> iduri... Eta hura gutxi bazuen, Teresa irriz agertu zitzaion, gainera, arranopola...!»	(73)
<b>uzkurtuta</b> 'bere baitan bildua, batuta legez'	«...amonaren irudia telebistaz ikusi zuèn lehen aldi hartan, arnasa kendu baliote bezala, kizkurtuta eta <b>uzkurtuta</b> ...»	(143)
<b>xalo</b> 'izaera garbikoa, malizia bakoa'	«Bertatik bertara ezagutu zuenean, ordea, Emili uste baino emakume <b>xaloagoa</b> zela egiaztatu zuen Kontxik.»	(105)
<b>zakar</b> 'desatsegina, gozotasun bakoa'	«Izan ere, gizon guztiak arrak eta zakarrak ditun, eta hori dun kontua...»	(92)
<b>zamaketari</b> 'zamak mugitzen dituen'	«Eta ez begetarianoak zirelako, bere aitak –Pasaiaiko portuan lan egiten zuenak, <b>zamaketari</b> gisa– gutxi irabazten zuelako baizik.»	(13)



<b>zaplazteko</b> 'muturrekoa, zapla, txaloa'	«...atzapar batekin emazteari lepotik heltzen ziola, bestearekin sekulako <b>zaplaztekoa</b> eman zion.»	(52)
<b>zazpi hasperenetan bukatu</b> 'hasperen edo suspirio indartsua'	«...txilin eta txilin, harik eta txilinaldi hura kurrinkaren antzeko <b>zazpi hasperenetan bukatzen</b> zen arte...»	(91)
<b>zer / zera</b> 'beste hitz bat ordezkatzeko hitza'	«Nik uste ninan modelo guztiak <b>zera</b> batzuk zirela, hik badakin...»	(183)
<b>zipitzik ere</b> 'tutik ere, izpirik ere, ezertxo ere'	«Hasieran, ez zuen <b>zipitzik ere</b> ulertzen.»	(125)